



TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 7/12/2016
HASIERA / INICIO: 19:55
AMAIERA / FINAL: 20:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen 2016ko azaroaren 23ko saioko akta onartzea.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 23 de noviembre de 2016.

2.º.- Kreditu-aldaketarako 5/2016 expedienteo.-

Kredituak Aldatzeko Espedientea kontuan hartuta, kreditu gaikuntzen araubidearen bidez, 5 zenbakia duena eta Udal honen 2016ko aurrekontuan izapidetutakoa, eta Idazkari Kontu-hartzaileak igorritako aldeko txostena kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen: Lehen.- Kreditu gaikuntzen araubidearen bidez Kredituak Aldatzeko Espedientea onestea, 8.572 € eta hurrengo zehaztapenarekin:

2.º.- Expediente modificación de créditos 5/16.-

Visto el expediente de modificación de créditos mediante el régimen de habilitaciones de crédito identificado con el nº 5 e instruido dentro del presupuesto de 2016 de este Ayuntamiento y visto el informe favorable emitido por el Secretario-Interventor, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante el régimen de habilitaciones de crédito por importe de 8.572 € con el siguiente detalle:

5/2016 KREDITUA MOLDATZEKO ESPEDIENTEA / EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITO 5/2016					
KREDITUEN GAIKUNTZA / HABILITACION DE CRÉDITOS					
SARRERA KONTZEPTUA / CONCEPTO DE INGRESOS					
			Aurreikuspena Previsión	Egindakoa Realización	Soberakina Excedente
42013		BFA Gizarte Ekintza ohiko transferentziak Transferencias corrientes DFB Acción Social	0,00 €	8.572,00 €	8.572,00 €
GASTU SAILAK / PARTIDAS DE GASTOS					
			Aurreikuspena Previsión	Gehikuntza Aumento	Orotara Total
230	42101	Gizarte Zerbitzuen Partzuergorako ohiko transferentziak Transferencias corrientes a Mancomunidad de Servicios Sociales	57.724,57 €	8.572,00 €	66.296,57 €
OROTARA / TOTAL			57.724,57 €	8.572,00 €	66.296,57 €

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta betearazlea denez eta geroko izapiderik behar ez denez, Idazkari Kontu-hartzaileak kontabilitatean adierazi behar du kreditu aldaketa onetsi

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo, sin necesidad de ulteriores trámites procede que por la Secretaría-Intervención se refleje en la contabilidad la



berria, berehala sartuko dena indarrean.

modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

3.- B. A.en idazkia.-

Jarraian, Udal Arkitekto Aholkulariak emandako txostena irakurri zen B. A. E.k eginiko eskaerari dagokionez, Axpe auzuneko 17. etxearen irteeran baranda ipintzeko. Txostenean agerian geratzen da Busturiko beste etxe asko A. andrearen etxeak duen arrisku-egoera berean daudela. Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Lurralde Garapen Atalera jotzea, BI-2235 errepidearen hurbiltasunaren eragina jasotzen duten gunehorietarako nolabaiteko babesa ezartzea eskatzeko.

3.º.- Escrito de B. A.-

Seguidamente se dio lectura al informe emitido por el Arquitecto Asesor Municipal en relación a la petición formulada por B. A. E. para colocar una barandilla frente a la salida de la casa n.º 17 del barrio de Axpe. En él se pone de manifiesto que otras muchas viviendas de Busturia se encuentran en la misma situación de peligro en la que se encuentra la casa de la Sra. A. A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dirigirse al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia para solicitar la implantación de algún tipo de protección en esas zonas afectadas por la proximidad de la BI-2235.

4.- M. F. U. ren idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen M. F. U.k eginiko eskaera onartzea, orturako ur-hargunea jartzeko lizentzia emateko tasen likidazioa bertan behera uzteko, ez baitzuen lanik egin ez zegoelako hurbileko hornidura-sarerik.

4.º.- Escrito de M. F. U.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición realizada por M. F. U. para anular la liquidación de las tasas por la concesión de licencia para acometida de agua para la huerta, al desistir de la obra por no haber una red de abastecimiento cercana.

5.- Laia Kultur Elkartearen idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Laia Kultur Elkartearen eskaerari men egitea, hainbat pertsonaren jaiotze-, heriotza- eta erroldatze-datuak emateko, ikerketa historiko bat egiteko helburuarekin.

5.º.- Escrito de Laia Kultur Elkarte.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de Laia Kultur Elkarte, para facilitar datos de nacimiento, defunción y empadronamiento de varias personas, con la finalidad de realizar una investigación histórica.

6.- GEren idazkia, eskolako patioa estaltzeari buruz.-

Jose M^a Ucelay Herri Ikastetxeak aurkeztutako idazkia irakurririk, eskolan jolasdirako duten leku estalien eskasiaz, eta eskolako patioa erabat edo zati batean estaltzeko eskatuz, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen honakoa erantzutea:

1.- Gaia Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokiola erabat eta, beraz, horrenagana jo beharko duela eskolak.

2.- Hala ere, Udalak dagoeneko egin dituela aipaturiko Sailaren Lurraldeko Ordezkaritzarekiko izapide batzuk, eta horiei emandako erantzuna izan dela aurreikusitako lana zela hori, baina Herri Ikastetxeak uko egin ziola, horren

6.º.- Escrito del AMPA sobre cubrición del patio escolar.-

Dada lectura al escrito presentado por el AMPA del Colegio Público José M.^a Ucelay, sobre la falta de espacios cubiertos de recreo en el Colegio, y solicitan que se cubra total o parcialmente el patio escolar, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó responderles en el siguiente sentido:

1.- Que ese es un tema que compete exclusivamente al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, al que debe dirigirse el Colegio Público.

2.º.- Que, a pesar de ello, el Ayuntamiento ya ha realizado gestiones en la Delegación Territorial del citado



ordez eskola-jantokia egiteko, eta egun, bestelako behar larriagoak daudela (ikasgelak barrakoietan, patiorik gabeko eskolak...), eta horren arabera, Busturin lan horiek egitea ez dela aurreikusten.

Departamento, en las que la respuesta fue que ésa era una obra prevista para ser ejecutada y que fue el Colegio Público el que desistió de ella para construir en su lugar un comedor escolar, y que actualmente hay otras necesidades mucho más urgentes (aulas en barracones, colegios sin patios, etc.) que hace poco previsible ejecutar obras en Busturia.

7.- Gernika-Lumoko Kirol Patronatuaren idazkia.-

7.º.- Escrito del Patronato de Deportes de Gernika-Lumo.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Gernika-Lumoko Kiroletako Udal Patronatuari bi mila eta laurogeita hemeretzi euro eta hirurogeita hamaika zentimo (2.099,71 €) ordaintzea, 2016an Busturiko biztanle diren bazkideei dagozkienak.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó abonar al Patronato Municipal de Deportes de Gernika-Lumo la cantidad de dos mil noventa y nueve euros con setenta y un céntimos (2.099,71 €), correspondiente a los socios del año 2016 que son vecinos de Busturia.

8.- Ekarpena Behargintzari.-

8.º.- Aportación a Behargintza.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Gernika-Lumoko Behargintza mantentzeko dagokion kopurua ordaintzea, 5.912,78 €-koa.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó abonar la cantidad que le corresponde para el mantenimiento del Behargintza de Gernika-Lumo del año 2016, que asciende a la cantidad de 5.912,78 €.

9.- Udal ikastaroetarako lokalak.-

9.º.- Locales para cursos municipales.-

Alkate jaunak jakinarazi zuen (eta Larrabaster andreak berretsi) mantentze-gimnasia ikastaroa Arroategi Fundazioaren nesken eskola zaharrear emateko esperientziak ez duela eman aurreikusitako emaitzarik, argi geratu baita lokal txikia eta ezegokia dela.

El Sr. Alcalde informó de que la experiencia de impartir el curso de gimnasia de mantenimiento en los locales de la antigua escuela de niñas de la Fundación Arroategi no había dado el resultado esperado, ya que se ha demostrado que se trata de un local pequeño y poco adecuado.

Hori ikusirik, zumba eta gimnasia ikastaroak lekuz aldatzea proposatu zuen (zumbakoak Altamira kultur etxetik Aingerubidekora, eta gimnasiakoak, Aingerubidetik Altamirara), azken jarduera horren soinu-maila ez baita hain gogaikarria liburutegiko erabiltzaileentzat; Arroategi fundazioaren lokala ezohiko kasuetan erabiliko litzateke, Altamira kultur etxeko ekitaldi-aretoa erabiltzea ezinbestekoa denean.

A la vista de ello, propuso que se intercambiasen los locales en los que se celebran los cursos de zumba (que pasaría de la casa de cultura de Altamira a la de Aingerubide) y gimnasia (que pasaría de Aingerubide a Altamira), por considerar que el nivel sonoro de esta última actividad es menos molesta para los usuarios de la biblioteca; utilizándose el local de la fundación Arroategi en casos extraordinarios en los que sea imprescindible utilizar el salón de actos de la casa de cultura de Altamira. A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar la propuesta de la Alcaldía y que el próximo año los cursos se organizarán para impartirse en Aingerubide.

Larrabaster andreak ordutegiak egokitzeko aukera ere proposatu zuen, eta Alkate jaunak erantzun zuen saiakera egin zela, baina ezinezkoa zela.

Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Alkatetzaren proposamena onartzea, eta datorren urterako, ikastaroak berrantolatzea, horiek Aingerubiden eman ahal izateko.

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Al-

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la



Busturiko
Udala



Akta

kate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde,

Idazkaria/El Secretario,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez